

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Nekea

Neketa nabaria da. Pasa den udara hasieran bezalakoa, okerragoa ziu-
rrenik ere; pasa den udara hasie-
ran txertatzeak ekarriko zituen
onurak aurreikusten genituelako,
iluntasunaren amaieran argi pix-
ka bat. Orain, berriz, urte amaieran, sindemia
hasi eta ia bi urte igaro ondoren ez dugu argirik
ikusten tunelaren amaieran.

Txertaketak, kasuen larritasunean eragin
duen arren, ez du transmisioa eten. Esfortzu in-
dibiduala eskatu zaigu behin eta berriro, baina
publikoa ahuldu eta ahuldu duten honetan, ko-
lektiboan atsedena ezin harturik, indibiduoak
nekaturik gaude.

Sistemak ez badu malgutasunez jokatzeko
horrelako egoera baten aurrean, egoera zaurgarria-
go batean daudenentzat zama bikoitza da. Atzo,
lagun min batek mezua bidali zidan. Ni baino
urte gehiago dituen emakumea da, dagoeneko
seme-alabak etxetik kanpo ditu eta gurasoak
orain dela urte gutxi hil egin ziren. Kafe bat har-
tu nahi zuen nirekin, aspaldian elkar ikusi gabe;
pandemia hasi zenetik, esanen nuke. Azaldu
nion alaba txikia etxean dugula, gelako Wha-
tsapp taldearen bidez jakin genuelako bere gela-
kide bat covid-en positibo zela, gurasoek antige-
no proba egin ondoren. Esan nion ez genuela
Osasunbidearen aldetik mezurik jaso eta, berez,
txikiaren gela ez zegoela itxita, baina erabaki
genuela eskolara ez eramatea. Badaezpada anti-
geno proba bat eginen geniola etxean, PCRa egi-
teko hitzordua ematea itxaroten genuen bitarte-

an. Hark zera esan zidan: «Ez dakizu zenbatetan
pentsatu dudan zenbat poztan naizen seme-ala-
bak eskola adinean ez ditudalako eta nire gura-
soak hau hasi baino lehenago joan zitzaizkigula-
ko».

Eta horrela da, bizitzak erdigunean jarri behar
ditugula esan zaigu behin eta berriro, baina fun-
tsean «bakoitzak bere burua salba dezala» poli-
tikapean gabiltza; osasun zerbitzuak ahuldurik,
sareak apurturik, ardura indibidualaren diskur-
tsopean babesik gabe gelditu garelako. Mende-
koren bat etxean izatekotan sistemak gauzak
erraztu beharrean zaildu egin dizkigu. Osasun-
bidea lau edo bost eguneko atzerapenarekin ba-
dabil, zure arazoa da, etxean haurra izan behar-
ko duzu, ezjakintasunean, laguntzarik gabe.
Horregatik, nire inguruan nekea eta etsipena
nabariak dira.

Batzuk haserretu egiten dira txertoaren kon-
trako diskurtsoak entzuterakoan, baita covid pa-
saportearen kontrako diskurtsoak areagotzen
direnean ere. Egia da gauzak nahasten direla eta
zaila dela ñabardurak azaltzea; txertoaren alde
gaudeno neurri autoritarioek (pasaportea,
erruaren diskurtsoa eta abar) gure postura de-
fendatzea zaildu digute. Baina, nire ustez, gus-
tuko ez ditugun iritzi negazionista asko politika
indibidualisten emaitza baino ez dira; kolekti-
boa indartzen ez denean, osasun publikoa eta
zerbitzu publikoak indargabetzen direnean eta
esfortzu kolektiboaren aurrean esfortzu indibi-
dualaren diskurtsoa inposatzen denean, zer da
espero dena? •

Gustuko ez ditugun iritzi negazionista asko politika
indibidualisten emaitza baino ez dira; zer espero
kolektiboa indartzen ez denean, osasun publikoa eta
zerbitzu publikoak indargabetzen direnean, esfortzu
kolektiboaren aurrean esfortzu indibiduala goratzean?